

INGURUAREN INTERES TURISTIKOA

Aitzarratetako iturburua



Ertzilla ibaiaren isurbidea



Lezegaldeko leizea

Basakaitzeko iturburuak

Mendukilo kobazuloa

Madozko begiratokia



Aralarko San Migel

Irañetako iturburua

Latasako-Irurtzungo arrantzaleen bidea



Plazaolaren bide berdea

Beteluko Malloetako begiratokia

Azpirozko begiratokia



Informazio gehiago:

Lekunberriko Turismo Bulegoa
Plazaola, 21
948 50 72 04

EKIALDEKO ARALAR MENDILERROA URAREN MENDIAK



EKIALDEKO ARALAR MENDILERROA

Uraren mendiak




Aralarren bihotzean, Aitzarratetako iturburuan sortzen diren ur kantitate handiak hartzen dituzte barnean Kretazeoko kareharriek. Behe Kretazeoko tuparriek eta lutitek egiten diete bidea Ertzilla ibai lotsatiaren urei metro batzuk ibiltzeko. Gero, leizez eta dolinaz beteriko Jurasikoko kareharri hutsunetsuek berriz xurgatzen dituzte. Aurreraxeago berriz ateratzen dira lur azalera Basakaitzeko iturburuetan, eta bizia ematen diote Larraun ibaiari. Basoetan eta zelaietan ezkutatzen diren iturburu, isurbide, leize eta dolina ugari dituen ibilbidea da, toki paregabeak eta denentzako irisgarriak dauzkan paisaia karstiko batean.

Zergatik da hain garrantzitsua toki hau? Aralarreko mendilerroa eratzen duten harkaitzek modua badute beren barnean ura hartzeko, eta lurpeko isuria mesedetzen dute horrela (akuiferoak dira). Hemen dago Nafarroako lurpeko ur guztiaren bolumen nabarmenenetako bat. Ingurune karstiko honek nola funtzionatzen duen ulertzea mesedegarri izanen zaigu leku zoragarri honen jasangarritasuna bermatzeko.

Etapa 1 Iribas eta Larraun ibaiaren iturburua


Harkaitzeko labar handi baten oinetan jaiotzen den iturburu bat da; ibai gazte bat, ibilgua bat-batean desagertzen zaiona bere harkaitzeko ohearen azpian; leize sakon bat, lurpeko altxor ezkutuak dituena. Ibaia, gerora, indar handiz berpizten da, eta, geldiro modelatzen joan da Larraungo ibar osoa. Sekulako aberastasuna duen ingurunea da, zelaien eta basoen azpian ezkutatua, ura protagonista nagusia duena.



Galdetu al diozu zeure buruari noizbait ere ur tanta batek zer ibilbide egiten duen lurraren azpian? Inoiz bukatzen ez den bidaia da, "Uraren Zikloaren" bidaia. Leku hau zoragarria da ulertzeko nola funtzionatzen duen horrelako ingurune hauskor eta eder batek, eta jakiteko garrantzitsua dela babestea eta kontserbatzea.

Etapa 2 Mendukilo kobazuloa eta bere ingurune karstikoa



100 milioi urtetik gorako kareharriz osatua den mendiaren barnean, lurpeko altxor harrigarriak ezkutatzen dituzten leize paregabeak aurkituko ditugu. Estalaktitek, estalagmithek, eszentrikoek eta hamaika forma bitxik apaintzen dute paradisu ezkutu hau. Haitzuloetako organismoen biodibertsitate handia dago hemen, iluntasun betean bizitzen. Naturan den hauskortasunaren, edertasunaren eta orekaren adibidea da, babestu eta kontserbatu egin behar duguna leku zoragarri honen jasagarritasuna bermatzeko.



Baliabide natural baliotsuena izateaz gain, natura modelatzen duen eragile geologiko eraginkorra ere bada ura. Bere aktibitate ahaltsuari esker, forma karstiko zoragarriak sortu ditu hemen. Estalaktitek eta beste espeleotema mota askok balio handia dute zientziarako, iraganeko klimei buruzko informazioa gordetzen baitute barnean.

Etapa 3 Arakil ibaiko begiratokia

Goiko gailurrak nabarmentzen dira zerumugan balkoi natural paregabe honetan, eta mendi handiak eta ibaiak ikusten ditugu haien oinen azpian sigi-saga. Naturaren indarren neurrigabetasunaren adibide argia ematen digu toki honek. Hemen, gaur den egunean Arakil ibaia dabilen tokian, faila handi batek banatu zituen Andia eta Aralar. Urak, haizeak eta izotzak modelatu dute milioika eta milioika urtetan paisaia, gaur ikusten dugun bezala utzi arte.



Ongizatearen eta bizi kalitatearen sinonimoa da ura. Lurpeko ur kantitate handia gordetzen dute barnean mendi hauetako harkaitzek, eta Iribasko edo Iraitako iturburu garrantzitsuetatik ateratzen da kanpora. Kutsadurak arriskuan jartzen du hain kaltebera den ingurune hau, eta, hortaz, gure esku dago haren kontserbazioa bermatzea.